

**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN
2025EKO UZTAILAREN 17AREN
EZOHIKO BILERAREN AKTA**

2025eko uztailaren 17an, 09;15etan, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseilua eratu da modu ez-presentzialean. Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.5 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, kontseilu honen ondorioetarako, ulertzen da akta honetan jasotako erabakiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren egoitza nagusian hartu direla (Araba 45, Vitoria-Gasteiz), hura baita erakundearen egoitza.

Aurrekoa ezarri ondoren, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluko presidentek deituta, honako kide hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua eta presidentea; **Enrique Peiró Callizo jauna**, Osasuneko sailburuordea; **Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea**, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea; **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jaurlaritzaren Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea; eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuetako zuzendaria.

Kontseiluburuak quorum nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera, eta, horrenbestez, bertaratuek osoko bilkura eratu dute, kontseiluburuak deitutako bilkura egiteko eta aldeztatik bidalita zegoen gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Estatutu Sozialen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, Administrazio Kontseilu honetara joan dira, kontseiluburuaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusi **Susana López Altuna andrea**, eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea, **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA. - Erabaki-proposamenak, Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsio batzuei buruzkoak, Egonkortzeko EPEko lehiaketa eta oposizio-lehiaketa sistemetako izangaien behin betiko zerrendari, destinoen esleipenari eta izendapenaren argitaratzeari buruzkoak; eta, hala badagokio, hura onartzea.

4 erabaki-proposamen aurkeztu dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpen baten aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioari dagozkionak. Ebazpen horren bidez, EPEan hautatutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratu eta destinoak esleitu ziren. Errekurtsio horietan, aurkaratutako ebazpenak eteteko eskatzen da, kategoria hauetan, zehazki:

- Oftalmologiako FEM.
- Kardiologiako FEM.
- Mikrobiologiako eta Parasitologiako FEMT.
- Gizarte Langilea.

Errekurtsio guztien kasuan, eskatutako etendura ukatu behar da, errekurtsogileek ez dituztelako behar bezala egiaztatu Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako inguruabarrak, zeinek aurkaratutako egintzaren betearazpena eteteko ahalmena ematen baitute. Zehazki:

- 1) Betearazpenak kalte erreparaezinak edo erreparagaitzak ekartzea.
- 2) Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legearen 117. artikuluan ezarritako haztapen-zerrendari dagokionez, eteteak interes publikoari edo hirugarrenei eragingo liekeen kaltearen eta errekurritutako egintzen berehalako eraginkortasunaren ondorioz errekurtsogileari eragingo litzaiokeen kaltearen artean, adierazi behar da egin nahi den eteteak, lehenik eta behin, kalte larria eragingo liokeela interes orokorrari; izan ere, Administrazio Publikoak bere plantilletako destino hutsak betetzeko duen betearazpen-ahalmenari eragingo lioke, eta, bigarrenik, hautaketa-prozesuko izangaiei


eragingo litzaieke ez dutelako aukerarik esleitutako destinoa betetzeko, eta kalte horiek larriagotzat jotzen dira errekurtsogileak alegatutako bidegabekeriarekin alderatuta.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onartu dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

BIGARRENA. – Informazioa eta galde-eskeak.

Eztabaidagai gehiagorik egon ez denez, bilera amaitutzat eman da, 2025eko uztailaren 17ko 09:30ean.

Izpta.- Maiteder Mielgo Rubio
Idazkaria



Izpta.- Alberto Martínez Ruiz
Kontseiluburua
Osasun Sailburua
O.E.

